

JORNADAS Memoria eraikiz JARDUNALDIAK

URRIAK 22 - 23 de OCTUBRE

Bizkaia aretoa (Abandoibarra 3) Bilbo



Antolatzailea:
Organiza:



Babesleak:
Financian:



JARDUNALDIAK

Memoria eraikiz

Indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakumeen memoria

Mugarik Gabe 2010. urtetik *"Enfrentamos todas las violencias machistas, Patriarkaturik gabe denok Jabe"* izeneko indarkeria matxisten aurkako kanpaina batean murgilduta dabil. Honen helburua indarkeria matxistak ikustarazi eta hauetan sakontzea ikuspegi global eta internazional bate-tatik, munduko hainbat lekutako errealitateak lotuko dituen, eta jendarte eta mugimendu sozialak bere salaketan, eta horiei aurre egiteko ekimenak sustatzen inplikatzeko da.

Arazoaren tamainari buruzko gogoeta egiten dugu, sistema patriarkala in-darkeria hauek gertatzen den esparru gisa seinalatuz, Emakumeen Giza Eskubideak modu integralean defendatzeko beharra azpimarratuz, eta gi-zarte-eragile ezberdinek indarkeria matxista mota guztiak deuseztatze-ko duten erantzukizuna nabarmenduz.

Une honetan egiten dihardugun lana indarkeria matxisten biktima eta bi-ziraun duten emakumeen egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea al-darrikatzean oinarritzen da nagusiki, haien kontakizunak memoria sozial kolektiboren parte izan daitezen.



Jardunaldi hauek marko honetan proposatzen dira, eta **HELBURU** hauek lortu nahi ditugu:

- Indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakume egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea aldarrikatzeko memoriaren garrantziaz hausnartzea.
- Emakumeen memoriari buruzko gogoeta egitea, indarkeria matxisten aurkako estrategia gisa.
- Indarkeria matxisten biktima eta bizirik dirauten emakumeen memoria ekimenak ezagutzea.
- Jendarte zibiletik gauzatu daitezkeen erreparazio sinbolikorako proposamenetan aurrera egitea.

Zergatik ulertzen dugu memoria indarkeria matxisten aurkako estrategia gisa?

Indarkeria matxistako egoerei aurre egin dieten emakumeen ahotsak airtortzea, hauei sinesgarritasuna ematea, haien kontakizunak oroimen sozialean txertatzea eta egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea aldarrikatzea, indarkeria matxistak lehen mailako arazo sozial gisa kokatzea da, hau da, gai politiko eta estruktural gisa, guztiok inplikatu behar garen eta eraldatzeko gaitasuna dugun iruditegi kolektiboan.

Azken batean, memoria kolektiboan jaso nahi ditugu entzuten ez diren, zailentzen diren edo bigarren maila batean uzten diren emakumeen ahotsak, haien hitza eta bizipenak ukatuz eta, ondorioz, indarkeria matxistak legitimatuz.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek beren historia kontatzea gehiegikeria hau ahalbidetu zuten baldintzak aldatzen hasten duen ekintza politiko bat da. Oroimenak, bere dimentsio kolektiboan, narrazioa, eraikitzen ari den memoria berri batean aitortu behar den minezko barne-esperientzia baten eta partekatutako kalte kolektibo baten arteko zubi bilakatzen du. Emakumeak beren bizitzaren subjektu aktibo gisa kokatzea dira, beren bizipen eta indarkeriari aurre egiteko estrategiak gure historiaren parte gisa kokatuz. Biktima diren eta bizirauten duten emakumeen ahotsak memoria kolektiboan sar daitezzen sustatzea jendartea interpellatzea esan nahi du; emakume hauek ezagutu ditzaten, beraien kontakizunei harrera egin eta legitimatuz onartuz eta indarkerien kontra posizionatu daitezzen.

Jardunaldiak

Jardunaldi hauetan, indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakumeentzako egia, justizia eta erreparazioarako eskubidea aldarrikatzeko memoriaren garrantziaz elkarrekin hausnartu nahi dugu.

Lehenengo mahaiaren memoriaren kontzeptuari buruz sakonduko dugu, hau nola eraikitzen den eta honek indarkeria matxisten aurka borrokatzeko tresna gisa duen garrantzia azpimarratuz. Honez gain, erreparazioan hitz egingo dugu; zer den, zer elementuk osatzen duten eta lege-esparruan egin daitezkeen aldarrikapenak zeintzuk diren.

Ondoren, mahaiak eta ponentziak izango ditugu, non latitude, bizipen eta ibilbide desberdinetako kideek memoriari eta erreparazioari buruzko askotariko esperientziak partekatuko dizkiguten. Bakoitzak bere testuinguruan, bere tresna eta metodologiekin, gauzatutako ekimenak partekatuko dituzte: beharra nondik sortzen den, antolatzearen zergatia, nola egiten duten eta zer inpaktu dituzten.

Hurrengo egunean, indarkeria matxistei aurre egin dieten kolektiboetako kideekin hitz egingo dugu, eta euren erresistentzia estrategiak zein erakunde eta jendarteari justizia, egia eta erreparazioari dagokienez egiten dizkieten aldarrikapenak partekatuko dizkigute.

Gainera, gogoeta egiteko, imajinatzeko eta zergatik ez, elkarrekin konspiratzeko, erreparazio sinboliko sozialerako proposamenak landuko ditugu: zer ekintza izan daiteke erreparatzailea indarkeria matxistetatik biziraun duten emakumeentzat? Nola irudikatzen dugu?



Programa

URRIAK 22, OSTEguna

Bizkaia Aretoa (Abandoibarra 3), Oteiza entzunaretoa (1. solairua)

10:00 - 10:30 - Jardunaldien aurkezpena.

10:30 - 12:00 - **1. Mahaia: INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA ETA BIZIRAUN DUTEN EMAKUMEEN MEMORIA ETA ERREPARAZIOA. ZERTAZ ARI GARA?**

- > Memoriaren erabilerak indarkeria matxisten aurkako estrategia gisa (Luz Maceira).
- > Indarkeria matxisten erreparaziorako eskubidearen hurbilpen bat ikuspegi juridikotik (María Naredo).

12:00 - 12:30 - Atsedena.

12:30 - 14:00 - **2. Mahaia: EKITALDI SINBOLIKOAK, MEMORIA TOKIAK ETA EMAKUMEAK HISTORIAN IKUSARAZTEA.**

- > "Nik sinisten dizut, emakumeen egia aitortu" ekimena: Foro Sozial Iraunkorreko Lantalde Feminista (Olatz Dañobeitia eta Arantza Urkaregi).
- > Basaurin emakumeen memoriarako toki bat bilatzeko prozesua (Anabel Sanz).
- > Emakumeen papera ikustaraztea: Intxorta 1937 Kultur Elkarte (Nerea Villa).

14:00 - 16:00 - Etenaldia.

16:00 - 17:30 - **3. Mahaia: BIZITZA ISTORIOAK, JUSTIZIA EGITEN DUTEN JAIALDIAK ETA EMAKUMEEN AITORTZA.**

- > Emakumeen memoriari hurbilpen bat ikuspegi artistikotik (Art al Quadrat)
- > Bizitza-istorioak dokumentatzea ekintza politiko bezala: Ruta Pacífica de las Mujeres (Alejandra Miller).
- > Memoriaren aldeko jaialdiak: erreparaziorako, geure buruari justizia egiteko eta gure historia eraldatzeko gunea: Actoras de Cambio (Amandine Fulchiron).
- > Memoria egiteko eta emakumeen aitortzarako ekimenak: Mujeres Que Crean (Angélica Naranjo).

17:30 - 17:45 - Atsedena.

17:45 - 19:00 - **Hitzaldia: MEMORIA KOLEKTIBOA ERAIKITZEKO KONTAKIZUNEI BURUZ HITZ EGITEAREN GARRANTZIA**

- > Cristina Fallarás

URRIAK 23, OSTIRALA

Bizkaia Aretoa (Abandoibarra 3), Oteiza entzunaretoa (1. solairua)

10:00 - 11:30 - 4. Mahaia: BIZIRAUN DUTEN EMAKUMEEN ELKARTEEN LANA. ESPERIENTZIAK ETA ALDARRIKAPENAK.

- > Goizargi Emakumeak.
- > Bizitu Elkarte.
- > Guerreras Deba Garaiko emakume elkarte.
- > Asfalto arteko loreak eta Memoria Eraikiz esperientzia: Mugarik Gabe.

11:30 - 12:00 - Atsedena.

12:00 - 14:30 - Tailerra: INDARKERIA MATXISTEN BIKTIMA ETA BIZIRAUN DUTEN EMAKUMEENTZAKO ERREPARAZIO SINGOLIKORAKO PROPOSAMEN BATERANTZ.

- > Dinamizazioa: xxk kolketiboa.

14:30 - 17:00 - Etenaldia.

URRIAK 23, OSTIRALA

Barrainkuako Udaltegia (Barrainkua 5), areto nagusia

17:00, 18:00 eta 19:00etan (3 emanaldi) - MEMORIA ERAIKIZ

- > Hortzmuga Teatroa eta Mugarik Gabe

Jardunaldiak Barrainkuako udaltegian MEMORIA ERAIKIZ proposamen artistikoarekin itxiko ditugu. Mugarik Gabek Hortzmuga Teatroarekin batera bultzatutako proposamen artistiko honek jakintza-alor anitzetako instalazio artistiko baten laguntzaz, zentzumen-esperientzia ezberdin bat bizitzera gonbidatzen gaitu. Guatemala, El Salvador, Kolonia eta Euskal Herriko emakumeak, indarkeria matxisten konplexutasuna ulertzen lagundu eta haien egiturazko kasuetan pentsatzen laguntzen digute.

Bidaiaren helburua jendarteak ahots hauek entzutea, haiekiko elkartasuna adieraztea eta indarkeria matxisten aurrean duten erantzukizuna ulertzea da; indarkeria horiek ezagutzea, sistema patriarkal hau eraldatzea eta gu geu eraldatzea.





Emakume hauen kontakizunen bidez, indarkeriek beren bizitzetan izan dituzten inpaktuak ezagutuko ditugu eta nola aurre egin dieten. Eta ingurunetik eta jendartetik zer espero duten jakingo dugu.

Emakumeen ahotsak berreskuratzeko apustua da, ez dugulako nahi historiako bazterrean utzita jarraitzea, gure memorian gorde nahi dugu, memoria kolektibo bat berreraiki eta berriz gerta ez dadila oihu egin nahi dugu.

Entzutera ausartzen zara? Honetaz guztiaz hausnartzera? Indarkeria matxistea aurre egingo dion eraldaketa kolektibo baten parte izatera?

MUGARIK GABE

www.mugarikgabe.org



Euskal GGKE ezkerreko antolakunde asanbleario, feminista, ekologista, internazionalista, solidarioa eta horizontala gara. Herri eta pertsona guztiok eskubide berdinak ditugula sinistuta gaude, eta horrek mugitzen gaitu. Indarrean dagoen eredu neoliberal eta patriarkalarekin kritikoak gara; eredu horrek gehiengoaren ezberdintzea, eskubide urratzea eta menperatzearen bitartez gutxi batzuk aberastu eta pribilegiatzen dituela salatzen dugu.

Bidezko mundu bat lortzean lagunduko diguten alternatibak zabaldu, sustatu eta esperimentatzen ditugu. Bizitza erdigunean jarri eta herriarentzat zein emakume eta gizonentzat justuagoa izango den mundua eta, era berean, etorkizuneko belaunaldientzako jasangarria izango dena. Gure herriko kolektibo eta gizarte-mugimendu askatzaileekin eraikitako alternatibak bai eta Latinoamerikako kolektiboekin sortuak, zeintzuetatik etengabe ikasten dugun, besteak beste, mugimendu indigenatik, nekazari eta feministetatik.

BAZKIDETU ZAITEZ!

- > Harremanetan jar zaitez gure webgunearen bidez www.mugarikgabe.org/eu/bazkide/
- > Honakora emaila idatziz bilbao@mugarikgabe.org
- > Edo, zuzenean, deitu **94 415 43 07**

